

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## EGA eskuratzeko azterketak egiteko deialdia onartu du Hezkuntzak

*Matrikula azaroaren 26tik abenduaren 20ra bitartean egin ahal izango da eta azterketak 2019ko otsaila eta irailean burutuko dira*

Asteartea, 2018.eko azaroak 6

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) lortzeko azterketen [deialdia onartu du](#). Azterketa egin ahal izateko matrikula epea azaroaren 26tik abenduaren 20ra bitartean izanen da. Eskakerak Hezkuntza Departamentuko erregistroan, Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorrean edo bestelako erregistroetan aurkeztu ahal izango da.

Lehen deialdiko azterketak 2019ko otsailean izango dira, eta irailean egingo dira bigarren deialdikoak. Azterketak hiru proba izanen ditu: atariko, idatzia eta ahozkoa. Atariko probak hizkuntza baliabideen inguruko test moduko 80 galdera izango ditu; idatzian, bi idazlan osatu beharko dira 180 hitzeko bat eta 250 hitzeko argudiozko edo azalpenezko testu bat. Azken proban, ahozkoan, testu batetik abiatuta bost minutuko azalpena eman beharko da eta 10 minutuko solasaldi bat.

Azterketen data zehatzak eta deialdiaren inguruko informazioa [www.ega.navarra.es](http://www.ega.navarra.es) eta [www.navarra.es](http://www.navarra.es) webguneetan kontsultatu daiteke.